

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

R 2/2016 Ebazpena

07/2011 Espedientea

Donostian, 2016ko otsailaren 27an.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak –Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuta– honako hau erabaki du:

## **ERABAKIA**

Gaia: Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak (ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) aurrean planteatutako eskumen-gatazka, 1. ERAKUNDEAREN (IFZ: ----) zerga-egoitzari buruz erakundea eratu zenetik – 2003ko irailaren 15etik– sortutako desadostasuna ebazteko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 07/2011 espediente-zenbakiarekin, txostengilea Gabriel Casado Ollero jauna dela.

## **I. AURREKARIAK**

1.- Gatazka hau Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak (ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) aurrean planteatu zuen, zuzendari nagusiak 2011ko martxoaren 17an sinatutako idazki baten bidez. Idazki hori Arbitraje Batzordean hurrengo egunean erregistratu zen, hilaren 22an.

Geroago aztertuko diren aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak kontuan hartuta, ZAEAk bere planteamendu-idazkian zera eskatzen du: Arbitraje Batzordeak deklaratzeko 1. ERAKUNDEAK (aurrerantzean “1. ERAKUNDEA” edo “erakundea”) bere zerga-egoitza Bizkaian izan zuela eratu zenetik, 2003ko irailaren 15etik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

2.- LEHEN ERAKUNDEA BIZKAIAN eratu zen 2003ko irailaren 15eko eskritura publikoaren bidez. Bazkide bakarra eta Administratzaile bakarra 1. BAZKIDEA zen. Era berean, erakunde horren % 100eko partaidetza ERAKUNDE TALDEAK zuen. Azken horrek ordezkari zeregina betetzeko pertsona fisiko bat izendatu zuen, 1. ORDEZKARIA jauna, 2009ra arte, eta data hartatik aurrera 2. ORDEZKARIA jauna.

Erakundearen sozietate-helburua, Merkataritza-erregistroan dagoen informazioaren arabera, parke eolikoak eraiki eta ustiatzea eta hirilurreko edota landalurreko higiezinak eskuratu, erosi, alokatu eta saltzea da.

Hasieran sozietate- eta zerga-egoitza Valladoliden ezarri zen. Geroago, 2006ko maiatzaren 29an, sozietate-egoitza Toledora lekualdatzea eskrituran inskribatu zen.

3.- Gatazka planteatu aurretik, ZAEAk honako hau egin zuen:

1. Erakundearen sozietate-egoitza egiaztatzeko prozedura hasia. Prozedura horretan, ZAEAREN Gaztela-Mantxako Ordezkaritza Bereziaren Ikuskaritzako Eskualde Bulegoak 2010eko ekainaren 21ean, 22an eta 29an bisitak egin zituen 1. ERAKUNDEAK Toledon deklaraturako helbidean. Ikusitako egitateak nahiz eskatutako eta sozietateak aurkeztutako agiriak eginbideetan jaso ziren.

Halaber, ZAEAREN Madrilgo Eskualde Ikuskaritzak, 2010eko irailaren 28an, ERAKUNDE TALDEAK Madrilen duen bulegoan bisita egin zuen. Bisita hartan informazioa eskatu zen, taldea osatzen duten eta parke eolikoak sustatzen dituzten edo sustatu dituzten sozietateen kudeaketari,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

administrazioari eta gobernuari buruz. Lortutako informazioa data bereko eginbidean jaso zen.

Kontuan hartuta erakundearen sozietate-egoitza egiaztatzeko prozedurako jarduketak, zergadunak aurkeztutako agiriak eta Administrazioak zeuzkan egitate eta aurrekariak, ZAEAREN Gaztela-Mantxako Ordezkaritza Bereziak 2010eko urriaren 21ean txosten bat egin zuen. Txosten horretan ondorioztatu zen zergadunak zerga-egoitza Bizkaian izan zuela eratu zenetik, 2003ko irailaren 15etik.

2. ZAEAK 1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza Toledotik Bizkaira aldatzeko prozedura hastea, Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikulua oinarri hartuta. Aldaketa horrek ondorioak sortu zituen eratu zenetik, 2003ko irailaren 15etik.

Planteamendu-idazkiari erantsitako eginbideetan egiaztatuta eta jasota dauden datu eta egitateak –horiek geroago azalduko dira– oinarri hartuta, ZAEAREN iritziz, “Toledoko bulegoan zerbitzu teknikoa soilik eman da, eta ezin da esan hori [1. ERAKUNDEAREN] administrazio-kudeaketa eta benetako zuzendaritza denik, hori BIZKAIAN egiten baita”; horregatik, 2010eko abenduaren 22an Zerga Agentziak, Itunaren 43. Bederatzi artikulua araberak, Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi zion beren-beregi irizpen bat eman behar zuela erakundearen helbidea Toledotik Euskal Autonomia Erkidegora Toledotik Euskal Autonomia Erkidegora (Zehazki Bizkaira) aldatzearen ondorioak atzeratzeko proposamenari buruz; eskari horrekin batera ZAEAREN Gaztela-Mantxako Ordezkaritza Bereziaren 2010eko urriaren 21eko txostenaren kopia igorri zuen.

BFAri zerga-egoitza aldatzeko proposamena jakinarazi eta bi hilabeteko epea igarotakoan BFAk ez zuen erantzunik eman. Hortaz, ZAEAREN iritziz,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.1 artikulua arabera, BFA ez zegoen ados zerga-egoitza atzeraeraginez aldatzarekin, proposatu zitzaionez. EIABaren 13.2. artikuluan ezarritako hilabeteko epean BFAk ez zuen erantzunik eman. Horregatik, ZAEAk gatazka hau planteatu zuen.

4.- Arbitraje Batzordeak 2012ko urriaren 29ko bileran tramiterako onartu zuen gatazka, eta BFA epatu zuen, alegazioak aurkez zitzan. Bada, BFAk, eskatu bezala epea luzatzea onartu ondoren, hala egin zuen Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen 2013ko urtarrilaren 16ko idazki baten bidez (sarrera-erregistroa hurrengo egunekoa, hilaren 17koa da). Idazki horretan, azaltzen dituen egitatezko aurrekarien eta zuzenbideko oinarrien arabera, Arbitraje Batzordeari eskatu zion erakundearen zerga-egoitza araubide erkideko lurraldean zegoela deklaratu zezala. Hasierako alegazioen idazki horretan BFAk azaltzen du ez dagoela ados “1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoela irizteko ZAEAk ematen dituen arrazoiekin; izan ere, zerga-egoitza horri buruzko irizpena eman ahal izateko, kontuan hartu behar lirateke 2010eko irailaren 28ko eginbidean eta 2010eko ekainaren 29koan agertzen diren egitateak, eta egitate horiek hain zuzen ere organismo horrek aipatu gabe uzten ditu” (1. zuzenbide-oinarria); eta zera ere dio: ZAEAk “beste erakunde batzuei buruzko beste egitate batzuk aipatuz lortu nahi duena da (...) ustez gatazkaren xedea konpontzea, baina egitateak ez ditu zehazki aztertzen, [hala] Arbitraje Batzorde honek desadostasuna espediente diferenteetan oinarrituta aurretiaz epai dezan eta ondorioa eta irizpidea beste zergadun batzuetan oinarrituta har dezan” (2. zuzenbide-oinarria). BFAk honako hau ere dio: badaki zein den “Arbitraje Batzordeek eta Auzitegi Gorenak ebazpen eta epaietan –hurrenez hurren– mantentzen duen irizpidea, administrazio-kudeaketaren eta negozioen zuzendaritzaren kontzeptuari buruz. Dena dela, azpimarratu behar da erakundearen jarduerak berak –dioenez–

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

parkea sustatzeko eta eraikitzeko epealdian planteatzen duen espezifikotasuna (...)" (4. zuzenbide-oinarria).

5.- Espedientea agertzeko tramitean, EIABAREN 16.4 artikuluan aurreikusita dagoen horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak azken alegazioak aurkeztu zituen Foru Ogasuneko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen 2013ko urriaren 4ko idazki baten bidez. Idazki horretan osorik berretsi zituen "arbitraje-prozedura honetan 2013ko urtarrilaren 16an egindako alegazioak, eta alegazioak erreproduzitzen jo zituen prozedurako ekonomiaren onerako".

6.- Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak, bere aldetik, 2013ko urriaren 9ko idazki baten bidez alegazioak aurkeztu zituen. Idazki horren sarrera-erregistroa hurrengo egunekoa da, hilaren 14koa. Idazki horretan ZAEAK gatazkaren planteamenduan jasotako aurrekari guztiak eta zuzenbide-oinarriak berretsi zituen, baita erreproduzitzen jo ere. Horrez gain, BFAk erabilitako argudioak aurkaratu zituen, eta bere asmoa berretsi zuen, bere iritziz Foru Aldundiak egindako aurkako alegazioek ez dutelako asmo hori indargabetzen.

7.- 2013ko irailaren 13an 1. ERAKUNDEARI espedientea agerrarazi zela jakinarazi zitzaion, eta ez zuen alegaziorik aurkeztu Arbitraje Batzordean.

8.- Prozedura hori Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera izapidetu da.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazkaren xede den gai bakarra ZAEAK BFAREN aurrean planteatutakoa da, hau da, 1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza zehaztea. Gai hau ebazteko,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

Ekonomia Itunaren 43.Lau, b) artikulua aplikatu behar da. Artikulu horrek xedatzen duenez:

“Ekonomia Itun honen eraginetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan zerga egoitza dutela ulertuko da hurrengo kasuan:

(...)

b) Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren menpean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, betiere, sozietate-egoitza horretan badin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza; edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan».

ZAEAREN iritziz, 1. ERAKUNDEAREN administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza Bizkaian egin zen eratu zenetik; 2003ko irailaren 15etik, alegia. BFA ez dago horrekin ados, bere iritziz erakundearen zerga-egoitza lurralde erkidean egon delako eratu zenetik.

2.- Hona Arbitraje Batzorde honek askotan errepikatu duen doktrina, Auzitegi Gorenak ere berretsia: “persona juridikoen zerga-egoitza zehazteko garaian, berdin dio non dagoen bere sozietatearen helbidea. Aitzitik, administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gun e nagusiaren kokapena da hori erabakitzen duen irizpidea. Dena dela, egoitza zehaztea ez da eginkizun erraza; izan ere, alde batetik aginduzko erregelek sekulako garrantzia dute zerga-egoitza zehazteko, zerga batzuk eta besteak aplikatze aldera; beste alde batetik, ordea, Ekonomia Itunean negozioen benetako administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza zentralizaturik dauden lekua identifikatzeko ez da arau bat ere

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

zehazten. Horrenbestez, “zerga-egoitzaren kokapena ziurtatzeko, (...) leku jakin batean aipatutako ezaugarriak daudela frogatu behar da”. Hala diote, besteak beste, ebazpen hauek: R4/2009, 2009ko martxoaren 6koa (5/2008 espedientea) –Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 8ko epaiak 191/2009 errekurtsioan berretsia–; R2/2013, 2013ko urtarrilaren 25ekoa (02/2010 espedientea); R3/2013, urtarrilaren 25ekoa (03/2010 espedientea); R4/2013, 2013ko urtarrilaren 25ekoa (04/2010 espedientea); R5/2013, 2013ko otsailaren 22koa (05/2010 espedientea); R6/2013, 2013ko otsailaren 22koa (06/2010 espedientea); R8/2015, 2015eko ekainaren 19koa (33/2014 espedientea); eta R12/2015, 2015eko ekainaren 19koa (30/2014 espedientea).

Aurreko ebazpen askotan, halaber, behin eta berriz nabarmendu dugunez, “administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza” nozioa kontzeptu juridiko zehaztugabea da, eta nozio hori zehazteko, kasuaren inguruabar guztiak hartu behar dira kontuan (besteak beste, ebazpen hauek: R3/2012, 2012ko martxoaren 30ekoa, 31/2008 espedientea; R7/2012, 2012ko maiatzaren 11koa, 36/2008 espedientea; R18/2012, 2012ko abenduaren 27koa, 19/2010 espedientea; R14/2013, 2013ko uztailaren 24koa, 31/2010 espedientea – Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 18ko epaiak 417/2013 errekurtsioan berretsia–; R4/2014, 2014ko urriaren 13koa, 2/2011 espedientea; R7/2014, 2014ko abenduaren 19koa, 32/2010 espedientea; R8/2015, 2015eko ekainaren 19koa, 33/2014 espedientea; eta R12/2015, 2015eko ekainaren 19koa, 30/2014 espedientea). Auzitegi gorenak azaldu duenez, “administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gune nagusiaren kokapena, esamolde hori, adierazpen konplexua da (...) eta kasurik kasu zehaztu behar da; halakoak txertatzean, kasu bakoitzaren inguruabar zehatz objektiboak kontuan hartu behar dira, baina horrez gain, eta funtsean, kontuan hartu behar da zer nolako sozietateaz ari garen zehazki, eta bereziki, zein jarduera egiten duen” (2013ko urriaren 17ko epaia, 538/2012 errekurtsioa, Laugarren Oinarria); 2014ko otsailaren 21eko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

epaia, 505/2012 errekurtsua, Laugarren Oinarria; eta 2015eko ekainaren 18ko epaia, 417/2013 eta 471/2013 errekurtsuak, Bosgarren Oinarria).

Bada, aurreko guztietan bezala, ZAEAk eta BFAk 1. ERAKUNDEAREN kudeaketa eta zuzendaritza benetan zein lekutan egiten den erabakitzeari buruz duten desadostasuna ebazteko (Ekonomia Itunaren 43.Sei artikulua eta Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren 3.c) artikulua), espedientean dauden datuak eta gainerako froga-elementuak aztertu beharko dira, eta kasuaren inguruabar guztiak kontuan hartu eta batera baloratu beharko dira; gainera, kontuan hartu beharko da sozietateak egiten duen enpresa-jardueraren funtsezko egitatea, eta jakina, abiapuntu gisa hartu beharko da horri guztiari buruz administrazio interesdunek emandako azalpena. Dena dela, aurretiaz esan behar da orain aztertzen den kasua nahiz gatazkan dauden bi administrazioek azaldutako alegazioak funtsean ez direla oso diferenteak, Arbitraje Batzorde honek lehenago aztertu eta ebatzi dituen askorekin alderatuta.

3.- Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak dioenez, 1. ERAKUNDEAREN administrazio-kudeaketa eta benetako zuzendaritza Bizkaian egin zen, eratu zenetik, Toledoko bulegoak ematen duen zerbitzu teknikoa ezin delako esan administrazio-kudeaketa denik. Hala ondorioztatzen da sozietate-egoitza egiaztatzeko prozedurako jarduketak dokumentatzen dituzten eginbideetatik eta ZAEAREN Gaztela-Mantxako Ordezkaritza Bereziak 2010eko urriaren 21ean egindako txostenetik. Horiek gatazka planteatzeko idazkiari erantsita daude, eta haien edukia laburtuta dago 3. aurrekarian eta 6. zuzenbide-oinarrian:

1. Erakundearen bazkide bakarra eta administratzaile bakarra, erakundea eratu zenetik, 1. BAZKIDEA izan zen. Haren zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dago. Administratzaile bakarraren



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

ordezkariak, 1. ORDEZKARIA jaunak ere, zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dauka.

2. Sozietatea BIZKAIAN eratu zen 2003ko irailaren 15ean. Hala ageri da Merkataritzako Erregistroan gordailututa dauden 2004ko urteko kontuen memorian. 2005eko apirilaren 26an, 1. BAZKIDEAREN bulegoetan (BIZKAIA) akziodunen ohiko batzar nagusi eta unibertsala egin zen. Batzar hartan 2004ko urteko kontuak onetsi ziren. Hala ere, 2006ko maiatzaren 29an Bilboko notario den 1. NOTARIOA jaunaren aurrean 1. ERAKUNDEAREN sozietate-egoitza Valladolideko probintziatik Toledoko probintziara lekualdatu izana eskrituran ezarri zen.

3. Merkataritzako Erregistroan dagoen informazioaren arabera, erakundeak zazpi ahaldun ditu; horietatik hiruk Bizkaian dute helbidea, batek Araban, beste batek Nafarroan, eta gainerako bietatik batek Bartzelonan eta besteak Toledon.

4. Erakundeak Toledon deklaraturako zerga-egoitzan bertan bost sozietate daude edo egon dira helbideratuta; hona hemen sozietate horiek:

- 2. ERAKUNDEA
- 3. ERAKUNDEA
- 4. ERAKUNDEA
- 5. ERAKUNDEA
- 6. ERAKUNDEA

5. Sozietateak 1. BANKUKO bi konturekin egiten ditu eragiketak, eta kontu horiek Bilboko sukurtsaletan daude irekita.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

6. 2010eko ekainaren 22an egindako eginbidean erakundeko ahozko mandatari ahaldunak adierazi zuenez, sozietateak ez du langile edo higiezinik, ez jabetzan, ez alokairuan, hau da, ez du bitarteko materialik bere negozioen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza egiteko. Hortaz, 1. BAZKIDEAK (egoitza BIZKAIAN du) ematen dizkio administrazio- eta zuzendaritza-zerbitzu horiek; eta halaber adierazi zuenez, sozietatearen jatorrizko dokumentazioa BIZKAIAN dago artxibatuta, eta bertan daude jasotako fakturen jatorrizkoak, ordainagiriak, BEZaren liburuak, zerga-aitorpenak, kontabilitate-liburuak eta abar.

7. Ekainaren 29ko eginbidean zehaztu zenez, 1. KUDEATZAILEA jauna sozietatearen kudeatzailea da, eta sozietatearen eginkizun teknikoek eta kudeaketaz arduratzen da; gainera, Espainian 1. BAZKIDEAREN sustapen-zuzendaria ere da.

8. Madrilgo ZAEAREN ordezkartza bereziaren Ikuskaritzak 2010eko irailaren 28an ERAKUNDE TALDEAK Madrilen duen bulegoan bisita egin zuen. Bisita hartan egindako eginbidean 1. ARDURADUNA jaunak, inbertsio nazionalen arduradunak, zera esan zuen: “ERAKUNDE TALDEAREN erabakiak hartzeko gunea Euskal Autonomia Erkidegoan dago; horregatik, zerga-egoitza lurralde horretan du”.

Azaldutako horretatik guztitik ZAEAK zera ondorioztatzen du: Toledoko bulegoak zerbitzu teknikoa soilik ematen du, eta ezin da esan hori administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza denik, hori Bizkaian egiten baita.

9. ZAEAK hau dio 7. zuzenbide-oinarrian: “1. ERAKUNDEA sozietatearen gatazka-planteamenduan azaltzen diren egitateak nahiz deslokalizazioa egiaztatzeko oinarriak, ZAEAK zerga-egoitza BIZKAIRA

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

aldatzeko proposatu izana justifikatzen duten oinarri horiek, 7. ERAKUNDEAREN egitate berberak dira. Beraz, bereziki argigarria da BFA 2010/06/22an ados egotea ZAEAREN ordezkariak bereziak Galizian zerga-egoitza aldatzea proposatu izanarekin.”

4.- Zuzenbide-oinarri hauetan ZAEAK jarraian laburtuta agertzen diren argudioak azaldu zituen:

A. 8. zuzenbide-oinarrian (“ERAKUNDE TALDEAK bere taldeko sozietateekin duen *modus operandi*aren aipamena”) hasieran IZENDAPEN KOMUNA izendapen komuna duten 22 sozietate anonimo aipatzen ditu, bakoitza dagokion toponimoarekin, eta horiei buruz adierazten du 2009 eta 2010 artean lurralde erkidetik foru lurraldera lekualdatu zirela, eta ondoren honako hau adierazten du:

“Sozietate hauetan ikus daiteke sorkuntza, helbideratze, ordezkariak, dibidendu pasiboen ordainketa eta abarri buruzko erabakiak ez direla sozietate bakoitzean indibidualki hartzen bere egoera juridikoa (zergena eta merkataritzakoa), beren sozietate-xedearen garapen desberdinak ezarritakoa (eta horrek finantzaketa, inbertsioa, ordezkariak eta abarri lotutako premia desberdinak dakartza), baizik eta bazkide bakar eta administratzailearen ordezkariak hainbat sozietaterentzat modu berdintsuan BIZKAITIK hartutako erabaki globalak direla.

Kasu horietan ere ez da administrazio-kudeaketaren lokalizazioa ezartzen duten zirkunstantzien behar adina aldaketa bat gertatu sozietate horien egoitza-aldaketa justifikatu ahal izateko, eta erabat pentsaezina da haien zuzendaritza efektiboa aldatu izan denik, eta, beraz, BIZKAITIK erabaki komunak hartu direlako ideia indartu egiten du horrek, bereziki zerga-egoitza BIZKAIRA lekualdatzeko erabakia,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

hainbat sozietaterentzat, haien benetako egoera eta premia zehatzak edozein izanik ere. Horri buruz errepikatzen ditugu 1. ARDURADUNA jaunak 1. BAZKIDEAREN parkeen sustapen eta salmenta unitateko kudeaketa-kontrolaren arduradun gisa esandakoak (2010/09/28ko fitxaren IV. Eranskinean dokumentatuta daude) eta 2. ARDURADUNAK ERAKUNDE TALDEA Korporazio Teknologikoko zerga-zuzendaritzako arduradun gisa telefono bidez esandakoak (hirugarren aurrekaria).

Horrek adierazten du zerga-egoitza BIZKAIRA aldatzeak, benetako aldaketa islatu ordez, sozietateen errealitate juridikoa haiek sortu zirenetik gertatzen zen errealitate batera egokitu besterik ez duela egiten.”

Ondoren, ZAEAREN idazkiak sozietateak eratu, egoitza aldatu eta ahalmenak emateko eta dibidendu pasiboak banatzeko egintzen hainbat adibide aipatzen ditu, IZENDAPEN KOMUNAREN sozietate-multzo bat eraginpean hartzen dituztenak, hau da, parke eolikoak ustiatzen dituzten hainbat sozietaterenak, “bazkide bakar eta administratzailearen ordezkariak, helbidea BIZKAIAN izanik eta Taldearen zuzendaritza eginez, BIZKAIAN hartutako erabaki globalak dira”.

B. Azkenik, ZAEAK 8. zuzenbide-oinarrian Arbitraje Batzorde honek 2008ko azaroaren 24ko 1/2008 ebazpenean (1/2008 espedientea) eta 2009ko urtarrilaren 28ko 1/2009 ebazpenean (2/2008 espedientea) eratutako aurrekaria aipatzen du, izan ere, ebazpen horietan adierazi zuen zerga-egoitza lurralde erkidean zuten IZENDAPEN KOMUNAREN erakundeen negozioen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten zela, eta ondorioz, aitortu zuen haien egoitza azken lurralde horretan kokatuta zegoela.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

BFAk bi ebazpen horien aurka errekurtsua aurkeztu zuen, eta Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak errekurtsu hori ezetsi zuen 86/2009 eta 155/2009 errekurtsuetan 2010eko otsailaren 4an eta ekainaren 16an hurrenez hurren emandako epaien bidez.

ZAEAk ondorio gisa zera dio: “Arbitraje Batzordearen eta Auzitegi Gorenaren ebazpen horiek esanguratsuak dira. Izan ere, alde batetik, zehaztu dute ERAKUNDE TALDEAREN sozietateen zerga-egoitza BIZKAIAN dagoela, bertan egiten delako administrazio-kudeaketa eta negozioaren zuzendaritza; eta, bestetik, zerga-egoitza BIZKAIAN dagoela ulertzeko oinarri hartzen diren irizpideak 1. ERAKUNDEARI aplikatu ahal zaizkiolako”; “2003an eratu zenetik, enpresak ez du langile propiorik, ezta lokal propiorik ere, eta ERAKUNDE TALDEKO sozietate batzuek ematen dizkiote administrazio- eta kudeaketa-zerbitzuak, baita parke eolikoa eraiki, muntatu, abian jarri eta mantentzeko zerbitzuak ere; ERAKUNDE TALDEAK bere gain hartzen ditu taldeko enpresa guztien administrazio-zereginak, sozietateetako bati gomendioa eginez; sozietate horrek zeregin hori BIZKAIAN dituen langileekin egiten du; kontratazioa BIZKAIAN dago, matrizeak erabilitako eta administratzailearen zerbitzura dauden edo egon diren pertsonak sinatutako ereduaren arabera; kontabilitatea BIZKAIAN egiten da; egindako fakturak BIZKAIAN igortzen dira, eta bertan gordetzen dira; jasotako fakturak BIZKAIRA eramaten dira; kontuan hartuta hori guztia nahiz idazki honetan eta gatazka-idazki honi erantsitako agiri guztietan azaldutako gainerako egitateak, argi dago 1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza BIZKAIAN egon dela, eratu zenetik gaur arte.”.

5.- Bizkaiko Foru Aldundia ez dago ados ZAEAk emandako arrazoiekin, eta, 2013ko urtarrilaren 16an egindako alegazio-idazkian dioenez, erakundearen zerga-egoitza araubide erkideko lurraldean dago eratu zenetik: Toledoko helbidean edo Madrilekoan, argudio hauen arabera:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

1. “ZAEAk beste erakunde batzuei buruzko beste egitate batzuk aipatzen ditu, bai eta BFA honek nahiz Arbitraje Batzordeak izandako portaera batzuk ere; hori eginez, gatazkaren xede den kasua konpondu nahi du, baina egitateak ez ditu zehazki aztertzen”; hau da, “ZAEAk portaera horrekin zera nahi du: Arbitraje Batzorde honek eztabaida hau aurretiaz epaitu dezala espediente diferentetan oinarrituta, eta ondorioak atera eta irizpideak ezar ditzala beste zergapeko batzuetan oinarrituta”.

Zehazki, ZAEAk aipatzen du Bizkaiko Foru Ogasunak 7. ERAKUNDEAREKIN izandako portaera; horri buruz, zera dio: “BFAk espediente horri buruz ez zuen gatazkarekin jarraitu ZAEAREN aurka; hala eta guztiz ere ezin da inola ere pentsatu espediente horretan azaldutako egitateak gorabehera [sic] isilbidez adostasuna ematen dienik planteatzen diren espediente guztiei; hala eta guztiz ere, espediente haren inguruabarrak, zeinengatik BFAk prozedurarekin aurrera jarraitzeari uko egin baitzion, ez dira beren-beregi azaldu behar espediente honetan, ez baitu zerikusirik.” Bada, ZAEAk horrekin zera lortu nahi du: eztabaida hau aurretiaz epaitzea espediente eta aurrekari diferente batzuetan oinarrituta.

2. 2010eko irailaren 28 eginbidean “ERAKUNDE TALDEAREN funtzionamenduari buruzko informazioa azaldu zen; dena dela, aipatzen den bakarra da 1. BAZKIDEAREN kudeaketa- eta zuzendaritza-eginkizunak BIZKAIAN daudela, eta horrekin ondorioztatzen saiatzen da espediente honen xede den erakundearekin gauza bera gertatzen dela. Erakundearen ordezkari entzat argi egon behar da 1. BAZKIDEAREN helbidea Bizkaian dagoela, hala deklaratzeko ari direlako; horrek, ordea, ez du esan nahi –ZAEAk hala nahi du– 1. ERAKUNDEAREN helbidea Bizkaian dagoenik, erakunde horri buruzko ondorioak berari dagozkion

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

egitate eta inguruabar espezifikoetan oinarrituta hartu behar direlako” (1. eta 2. zuzenbide-oinarriak).

3. BFAk dioenez, ZAEAk “bi akats garrantzitsu egin zituen, eta akats horiek eragina izan ahal dute behin betiko erabakia hartzerakoan:

1. Erakundeko ahaldunei buruz. 2009ko azaroaren 20tik aurrera 1. AHALDUNA jauna ez da erakundeko ahalduna.

2. Hasieran, erakundeko Administrazioaile Bakarraren ordezkaria 1. ORDEZKARIA jauna izan zen, baina 2009ko azaroaren 20tik aurrera 2. ORDEZKARIA. Azken horren zerga-egoitza, ZAEAk Arbitraje Batzordean aurkeztutako idazkian transkribatzen denez, lurralde erkidean dago”.

4. “Aztertu diren urteetan, erakundeak ez zuen inolako jarduerarik hasi; aitzitik, aerosorgailuen parke bat sustatu eta eraikitzeke fasean zegoen”. Horri buruz, BFAk zera dio: badaki zein zen den “Arbitraje Batzordeak eta Auzitegi Gorenak hurrenez hurren Ebazpen eta Epaietan mantentzen duen irizpidea, administrazio-kudeaketaren eta negozioen zuzendaritzaren kontzeptuari buruz. Dena dela, azpimarratu behar da erakundearen jarduerak berak parkea sustatzeko eta eraikitzeke epealdian planteatzen duen espezifikotasuna”; zergatik eta “administrazio-kudeaketak eta negozioen zuzendaritzak –soil-soilik kontabilitatearen ikuspuntutik– pisu espezifiko oso txikia duelako parkearen eraikuntza- eta sustapen-aldian garatu beharreko administrazio-osagai tekniko hutsarekin (inbertsioa egiteko erabakia, inbertsioa zein lurraldetan egin, zein lurzoru “eskuratu”, lizentziak, baimenak, eraikuntza, etab.) konparatuta; beraz, oso garrantzitsua da parke eoliko baten eraikuntzaren fase guztiak ezagutzea,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

administrazioko eta zuzendaritzako zeregin horien pisu espezifiko diferente hori ebaluatu ahal izateko”.

Segidan, Bizkaiko Foru Aldundiak azaltzen du parte eoliko baten eraikuntzak 3 fase dituela: sustapena, eraikuntza, eta eragiketa eta mantentze-lana.

- “Sustapena: Fase horrek 3 edo 4 urteko epealdia behar du. Epealdi horretan kokalekuak hautatzen dira, haizearen indarra aztertzen da, lizentziak eskatzen dira, egikaritzapen proiektua eta bideragarritasun plana egiten dira, etab. Fase horretan, administrazio-kudeaketa eta negozioaren zuzendaritza funtsean Kudeatzaileak egiten ditu, 2. KUDEATZAILEAK. Haren lantokia hain zuzen ere erakundearen helbidea dagoen lekuan dago, Coruña [hala ere hori ez da 1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza, baizik eta IZENDAPEN KOMUNAREN beste sozietateetako batena], fase horretan kudeaketa-lana eta lan hori egiteko beharrezko jarduketan zuzendaritza lehen aipatu den 2. KUDEATZAILEAK eta 1. SOZIETATEKO/1. BAZKIDETAKO gainerako taldekideek egiten dutelako Galiziako Ordezkaritzan [transkripzio-akatsa dago].

- Eraikuntza: Aurreko fasea behar bezala eginez gero, parkea eraikitzeari ekiten zaio. Parkea eraikitze epealdiak sei eta bederatz hila bitartean irauten du, parkearen tamainaren arabera.

- Eragiketa eta mantentze-lana: Jarduera horrek gutxi gorabehera 20 urte irauten du”.

Eta horren ostean, BFAk ondorio hau ateratzen du: parkea sustapen- eta eraikuntza-fasean zegoela, epealdi horretan kudeaketako eta zuzendaritzako zereginak ERAKUNDE TALDEKO langileek egiten



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

zituztenez Gaztela-Mantxako ordezkarietan, “zeregin horiei kasu egin behar zaie zerga-egoitzaren lekua zehazteko, hori baita erakundeak egiten duen jarduera bakarra; horrek esan nahi du erakundearen zerga-egoitza araubide erkideko lurraldean dagoela, eraikuntza- eta sustapen-fase horretan erakundearen administrazio-lan guztiak Toledoko ordezkarietan horretako langileek egiten dituztelako” (4. zuzenbide-oinarria).

5. ZAEAk Auzitegi Gorenaren aipatzen dituen epaietan ezartzen denez, Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorraren 12.2 artikulua babespean, bidezkoztat jotzen du Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudi indargabetuaren 22. artikuluan xedatuta dagoena aplikatzea, Ekonomia Itunean edo Zergei buruzko Lege Orokorrean ez delako zehazten, eta zehazkiago, “Erakundearen administratzaile edo kudeatzaileek kopuru nahikoan helbide fisikoa duteneko lurraldea” aipatzeari buruz, BFAk dioenez, “ezinbestean kontuan hartu behar da erakundearen jardueran alderdi batzuetan eta besteetan (alderdi juridikoak, teknikoak, kontabilitatekoak, finantza-arlokoak, eta abar) esku hartzen duten pertsona fisikoek hala jarduten dutela ERAKUNDE TALDEAREN besteren konturako enplegatu gisa duten harremanaren poderioz”; eta horrez gain esaten du Burtsan kotizatzen duen taldea izanik bere ezaugarrietako bat dela halako erakundeetan kudeaketa eta zuzendaritza “profesionalizatua” egitea; eta horregatik, kontuan hartu behar dela ez soilik administratzaile edo kudeatzaileen zerga-egoitza –besteren kontura enplegatutako pertsona fisikoek kasuan–, baizik eta haiek atxikita dauden lantokiaren lekua, non legeriaren babespean beren zerbitzuak eman behar baitituzte. Gainera, dioenez, “nolanahi ere, eta hori guztia gorabehera, erakundearen administratzaile bakarra 1, BAZKIDEA da, eta haren zerga-egoitza [...] Arabako Lurralde Historikoan zegoen 2010. urtearen erdialdera arte; garai hartan, egoitza hori Bizkaiko Lurralde Historikora lekualdatu zen”. 1.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

ORDEZKARIA jaunari buruz nabarmentzen da bere lanbide-jarduerak Araban dagoen lantoki batean egin dituela, salbu eta beste leku diferente bat aipatzen denean, adibidez ERAKUNDE TALDEKO Parkeen Sustapen eta Salmenta Sailaren Batzorde Betearazlearen bilerak, kontratuak, atzerrian egindako jarduerak, eta abar.

“Horrez gain, kontuan hartu behar da –BFAk dioenez– hain zuzen ere eta ZAEAK Arbitraje Batzordean aurkeztutako idazkia irakurritakoan ezinbestean honako hau ondorioztatu behar dela: 1. ORDEZKARIAK, ordezkari den aldetik, ezin ditu zuzenean eta modu indibidualizatuan egin administratzaile bakar bati dagozkion zereginak, kalifikazio hori zenbat erakundetari zeukan kontuan hartuta; horregatik, bere lana egin ahal izateko, langile-talde baten euskarri behar zuen. Beraz, azaldutako kasuan zehazki, ezin da saiatu erakundearen helbidea pertsona fisikoaren helbidera erakartzen *per se*, baizik eta erakundearen eta euskarriko langileen inguruko zirkunstantziak kontuan hartuta”; ondorio gisa zera dio: “iritzi hori nagusi bada, orduan ondorioztatu behar da 2. ORDEZKARIA jaunak administratzaile bakarra ordezkatzeko duen unetik aurrera zalantzarik gabe erakundearen zerga-egoitza lurralde erkidean dagoela, ordezkari horrek –ZAEAK Arbitraje Batzordeari aurkeztutako idazkian ageri denez– helbidea lurralde erkidean duelako”.

6. Erakundeko ahaldunei dagokienez, eta ZAEAK egindako hutsa kontuan hartuta, ahaldu horietako hiruk euren helbidea lurralde erkidean zuten, eta beste hiruk foru lurraldean.

7. Kontabilitateko agiri eta frogagiriak artxibatzeari dagokionez, BFAk alegatzen du kontuan hartu behar dela agiri horietako asko Madrilen zeudela artxibatuta. Erakundeko kontuen kanpo ikuskatzaileak Madrilen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

bertan egiten zuen eremuko lana, eta horregatik bertan egon behar ziren fisikoki ekonomia eta finantza arloko informaziorako agiri asko.

8. Ezin zaio kasu egin 1. SOZIETATEAREN zerga-egoitzari, alde batetik erakundeari zerbitzuak eman dizkieten ERAKUNDE TALDEKO langileei nahiz zerbitzu horiek ematen diren lurraldeari egin behar zaielako kasu; eta bestetik, erakundeak 1. BAZKIDEAREN zerbitzuak ez ezik ERAKUNDE TALDEKO beste erakunde batzuen zerbitzuak jasotzen dituelako. Azken horri buruz, Bizkaiko Foru Aldundiak ohar hauek egin zituen:

- ERAKUNDE TALDEAN Parkeen Sustapen eta Salmenta Sailaren Batzorde Betearazlea dago. Batzorde horrek bilerak hilean behin egiten ditu, batez ere Madrilen. Batzorde horretan erabakiak hartzen dira erakundearen estrategiari buruz, baita erabaki teknikoak, ekonomia eta finantza arlokoak, inbertsioen arlokoak, eta abar.
- Parke eolikoaren sustapen, eraikuntza eta ustiapenean aritzen diren erakundeek jasotzen dituzten kontabilitate arloko zerbitzuetan hainbat langilek esku hartzen dute. Langile horiek 1. SOZIETATEKOAK/1. BAZKIDEKOAK ez ezik Taldeko beste erakunde batzuetakoak ere dira, eta haien lantokiak hainbat lurraldetan daude: Madrilen, Bizkaian eta Nafarroan. Saileko arduraduna, erakundearen eragiketa guztiak ontzat emateaz arduratzen dena, 1. ARDURADUNA jauna da. Haren lantokia Madrilen dago.
- BEZaren liburuaren erantzukizuna Zerga Sailak du. Sail hori Nafarroan dago. Sail horrek bere ardurapean ditu zerga arloko jarduketara guztiak, adibidez erreklamazioak edo errekurtsioak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

ERAKUNDE TALDEKO sailak honako leku hauetan daude:

- Finantza-arloa: zati handiena Madrilen.
- Arlo juridikoa: Madrilen.
- Diruzaintza: Madrilen 2010az geroztik.
- Zerga-arloa: Iruñean.
- Zuzendaritza Nagusia: Madril eta Bilbo artean.

- Bizkaiko Foru Aldundiak dioenez, ERAKUNDE TALDEAK Madrilen 1. KOORDINATZAILEAREN ardurapeko unitate bat izan zuen 2012ko abendura arte. Unitate horrek parkeen titular ziren sozietateei laguntza ematen zien. Urte horretatik aurrera zeregin horiek lantokia Iruñean duen beste pertsona batek hartu ditu bere gain.

6.- BFAk bere alegazio-idazkia amaitzeko ondorio hauek azaltzen ditu:

1. “Esanguratsua da espediente honi dagokionez [...] erakundearen zerga-egoitzari buruzko desadostasunek garrantzia hartzen dutela erakundeek bere ustiapena hasten duten unera arte. Hau da, ordura arte, BEZa kudeatu, likidatu eta egiaztatzeko eskumena zuen administrazioa [...] zerga-egoitzari zegokiona zen. Une horretara arte (...) parkea orokorrean ustiapen- eta eraikuntza-fasean dago, eta horrek esan nahi du [...] erakundea hornitzaileen fakturen hartzailea dela eta, ondorioz, BEZaren ondorioetarako zergapekoa bere zerga-egoitzako Administrazioak itzuli beharreko BEZa eskatzeko egoeran dagoela, BEZaren kuota garrantzitsuak jasan izan dituelako [...]. Hala ere, ustiapena hasten den unetik aurrera jasandako BEZaren kuotak oso txikiak dira, baina parkeek jasanarazitako BEZaren zenbateko garrantzitsua dute. Dena dela, ia parke eoliko guztiek beren instalazioak Lurralde Erkidean dituztenez eta horiek guztiek normalki 6/7 milioi eurotik

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

gorako eragiketa-bolumena dutenez, beren eragiketa guztiak beren instalazioak dauden eta/edo zerga-egoitza Lurralde Erkidera lekualdatu denez, zerga-kontzeptu hori jasanarazteko eskumena duen administrazioa azken lurralde horretakoa da. Beraz, ZAEaren pretentsioekin, ondorioztatuko litzateke parkearen ustiapena hasi arte eraikuntza eta ustiapenagatik jasandako kuota guztiak [sic] BFAk itzuliko litzuzkeela; eta ustiapena hasten zen unetik aurrera BEZ guztia Lurralde Erkidean sortu eta ordainduko litzateke”.

2. “Kontuan hartu beharko litzateke erakundeak egindako jarduera, eta bereziki:

1. Estrategiari, finantzaketari, inbertsioei, eta abarrei buruzko erabakiak Parkeen Sustapen eta Salmenta Sailaren Batzorde Betearazleak hartzen ditu. Batzorde horrek [...] bere bilera gehienak lurralde erkidean egiten ditu, Madrilen.

2. Proiektuaren eguneroko zuzendaritza 1. BAZKIDEAK Toledon duen talde teknikoak egiten du. Talde horrek erabakiak hartzen ditu beharrezkoak diren administrazio-tramiteei buruz (lizentziak, tasak, eta abar), kontratazioei buruz, eta fakturen onespeneren eguneroko kudeaketari buruz, eta abar.

3. Txosten honetan egiaztatuta geratu da administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, gehienbat, lurralde erkidean dagoela”.

7.- Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak bere azken alegazioetan planteamendu-idazkian azaldutakoak berresten ditu, eta BFAk erabilitako argudioen aurka egiten du, jarraian azalduko den moduan:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

1. “Zerga-egoitza kokatzean jasandako BEZaren kuotak itzultzeko edo sortutako BEZaren kuotaren sarrera jasotzeko eskumena duen zerga-administrazioa zein den kontuan hartzea, gutxienez jardunbide desleiala da, eta ekonomia aldetik interesatua. Bizkaiko Foru Aldundiak aditzera ematen duenez, bidegabea iruditzen zaio zerga-administrazio batek itzulketa egitea eta beste administrazio batek dirua biltzea; horretarako, konexio-puntuak alde batera uzten ditu, edo puntu horiek egokitzen saiatzen da, zerga-egoitzaren kokalekua non deklaritzen den eta horren arabera”. “Zerga-egoitza egitatezko kontua da, eta zerga baten –kasu honetan BEZaren– ordainarazpenaren arabera lurralde batean edo bestean kokatzen saiatzea zergak lurralde jakin batean ordaintzeko interesatutako distortsioa da. Beste hitz batzuk erabiliz, bat eta bakarra da zerga-egoitza, eta lurralde jakin batean kokatzen da, erakundearen kudeaketa eta zuzendaritza non egiten diren eta horretan (hori baita gatazkaren funtsa)”. “Gutziz bestelakoa da -ZAEAK dioenez- non egiten den zergaren ordainarazpena eta non egiten diren eragiketak; horretarako, Ekonomia Itunaren konexio-puntuetan horri buruz ezarrita dagoenari jaramon egin beharko zaio”; horri buruz zera nabarmentzen du: “Itunak eta legeriak ez dute aurreikusten zerga-egoitza aldatu daitekeenik enpresa baten jarduera bere ekoizpen-prozesuaren fase batean edo bestean dagoen.”; eta horri buruz, Arbitraje Batzordeak R16/2013 Ebazpenaren (4/2011 gatazka, 2. ERAKUNDEA) 8. Zuzenbide-oinarrian azaltzen duena aipatzen du .

2. BFAk argudiatzen duenez, gatazka honek hizpide dituen ekitaldietan erakundearen jarduera parke eolikoa sustatu eta eraikitzea izan da, eta epealdi horretan “eguneroko administrazio-kudeaketa” lana 1. BAZKIDEAK Toledon duen talde teknikoak egiten du; “erabaki estrategikoak”, berriz, ERAKUNDE TALDEKO Parkeen Sustapen eta Salmenta Sailaren Batzorde Betearazleak hartzen ditu. Argudio horiei

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

buruz, ZAEAk dioenez, Arbitraje Batzorde honen lehenagoko ebazpen batzuen arabera zerga-egoitza bakarra egon liteke, eta administrazio-zuzendaritza edo -kudeaketako jardueren edo jarduera teknikoen zati bat lurralde jakin batean garatzen direla onartu arren, zerga-egoitza beste lurralde batean finkatu ahal da, lurralde horretan daudelako “administrazio-kudeaketa eta negozioaren zuzendaritza” definitzen dituzten “elementu gehienak”.

3. ZAEAREN iritziz, “Hasiera batean lurralde komunean aitortutako zerga-egoitzan garatutako jarduerak, alde batetik, teknikoak dira, horrenbestez exekutiboak eta zalantzarik gabe garrantzitsuak, baina Ekonomia Itunaren 43. artikulua aipatzen dituen zuzendaritza-jardueretatik argi eta garbi bereiziak (Itunak erakundearen zerga-egoitza kokatzen du bere administrazio-kudeaketa negozioen zuzendaritza non dauden eta leku horretan), eta bestalde, kudeaketa- eta administrazio-izaerakoak dira, hau da, gutunak, jakinarazpenak eta fakturak egoitza batean zentralizatzea ondoren BIZKAIRA bidaltzeko, non erakundearen administrazio-kudeaketa benetan garatzen den.” ZAEAREN iritziz, erakundearen benetako zerga-egoitza BIZKAIAN dago, lurralde horretan baitu 1. SOZIETATEAK/1. BAZKIDEAK zerga-egoitza. Hain zuzen ere, hura da 1. ERAKUNDEAREN administratzaile bakarra, eta horrez gain, hura “arduraten da ERAKUNDE TALDEAREN egituraren barruan administrazio- eta kudeaketa-zerbitzuak emateaz halakoak egiteko bitarteko materialik edo giza-baliabiderik ez duten parke eolikoaren sustapen-sozietateei, baldin eta halako sozietateen administrazio-kudeaketa zentralizatzeke azpiegitura nahikoa badago”; beraz, ZAEAREN ustez, zalantzarik gabe, “erakundearen administrazio-kudeaketa BIZKAIAN benetan garatzen da benetan”.

4. Arbitraje Batzordearen R1/2008 eta R1/2009 Ebazpenak berretsi egiten dituzte Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

Epaiek, BFaren errekurtsoak ezesteaz gain. Ebazpenak eta epaiak kasu honetan aplikatzea auzitan jartzen du BFAk. Horri buruz ZAEAk nabarmentzen ditu “Ebazpen eta Epai horiek egiaztatutako egitate hauek:

- a) 1/2008 eta 2/2008 gatazkak ZAEAk planteatu zituen parke eolikoen titular diren sozietate batzuek deklaraturako zerga-egoitzari buruz.
- b) Sozietate horiek pertsona bakarreko sozietate anonimo gisa eratu ziren, eta haren bazkide eta administratzaile bakarra 1. BAZKIDEA, ERAKUNDE TALDEAREN “holding” sozietatea zen.
- c) parke bakoitza non zegoen proiektatuta, hantxe deklaratu zuen sozietate bakoitzak bere zerga-egoitza, nahiz eta egoitza batek ere ez zituen betetzen zerga-egoitza deklaratzeko bete beharreko baldintzak; ondorioz, ZAEAk gatazka horiek azaldu zituen Arbitraje Batzordean, uste zuelako sozietateen zerga-egoitzak, eratze-datatik aurrera, BIZKAIAN egon behar zuela, leku horretan betetzen zirelako sozietate batzuen eta besteen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza-lana.
- d) Sozietateek ERAKUNDE TALDEKO beste sozietate espezializatu batzuekin zerbitzuen errentamendu-kontratuak, instalazioak eraikitze kontratuak, aerosorgailuak abian jartzeko kontratuak, etab. sinatzen zituzten, eta ez zuten langile propiorik, ezta lokal propiorik ere; horregatik, ez zuten beren burua kudeatzeko ahalmenik.
- e) Erakundeen zerga-egoitzak zein lurraldetan deklaratu ziren eta 1. SOZIETATEAK/1. BAZKIDEAK bertan egindako zereginak hauek ziren: alde batetik, fakturak, korrespondentzia eta jakinarazpenak jasotzea, gerora BIZKAIRA igortzeko, eta bestetik, zuzendaritzak hartutako



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

erabakiak tokian bertan betearaztea. Zeregin tekniko horiek ez datoz bat administrazio-kudeaketaren irizpidearekin, are gutxiago negozioen zuzendaritzaren irizpidearekin.

f) Arbitraje Batzordearen eta Auzitegi Gorenaren aipatutako Ebazpen eta Epaietan hitzez hitz erreproduzitzen dira hurrengo paragrafoak, ERAKUNDE TALDEAK Espainiako geografia osoan dituen parke eolikoen kudeaketa eta zuzendaritza nola antolatu zituen azaltzen dutenak (...).

Arbitraje Batzordeak, bi gatazkak ebazteko, zera ondorioztatu zuen: parke eolikoen titular diren sozietate guztiek betidanik izan zuten zerga-egoitza Bizkaian, eta Auzitegi Gorenak bi ondorio horiek berretsi zituen”.

ZAEAK zera ere dio: “zergapekoari buruz azaldutako egitate eta inguruabarrak aztertuz gero (...) argi eta garbi ikus daiteke koherentzia dagoela –koherentzia logikoa, bestalde– ERAKUNDE TALDEAK gatazkaren xede den sozietatea kudeatzen eta zuzentzen duen moduaren eta aurreko ataletan azaldutako moduaren artean, alde batera utzita dauden diferentziak, taldeak urteetan zehar lortutako profesionalizazio eta espezializazio handiagoaren ondorioz sortutako diferentziak, hain zuzen ere, hala jartzen baita agerian taldeak izandako berrantolaketetan, bai berrantolaketa juridikoetan -1. BAZKIDEAK 1. SOZIETATEA xurgatzea, holdingaren burutzaren sozietate-egoitza ARABATIK Bizkaira aldatzea 2010ean, zergapekoaren zerga-egoitza lekualdatzea 2009an [zera esan behar du: 2006an]- bai kudeaketakoetan -arlo batzuk Sail espezializatuetan zentralizatzea, adibidez zerga arloa Nafarroan, diruzaintza Madrilen, kontabilitatea BIZKAIAN- edo soilik administrazio

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

arlokoak -ERAKUNDE TALDEAREN kontabilitate-sistema integrala ezartzea-.

Aurreko guztia ikusita, ondorio hau soilik atera ahal da: parke eoliken titular diren sozietateen zerga-egoitza zehazteko kontuan hartutako irizpideak eta Arbitraje Batzorde honek 1/2008 eta 1/2009 Ebazpenetan ateratako ondorioak, Auzitegi Gorenak geroago berretsitakoak, osorik aplika dakizkioke gatazka honi; horrek ez du esan nahi ondorio haiek zergapekoari mekanikoki aplikatu behar zaizkionik...”.

ZAEAk beste hau ere badio: “antzeko zerbait adierazi du duela gutxi Arbitraje Batzordeak; izan ere, bai 14/2013 Ebazpenaren 15. zuzenbide-oinarrian (ZAEAk 8. ERAKUNDEAREN zerga-egoitzari buruz planteatutako 31/2010 gatazkari dela eta), bai lehenago aipatu den 16/2013 Ebazpenean 8. zuzenbide-oinarrian ezesten dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioak, funtsean, orain aurkaratu denaren berdinak dira (...)”.

Halaber, ZAEAk nabarmentzen duenez, 16/2013 Ebazpenaren 8 zuzenbide-oinarrian, BFAk 1/2008 eta 1/2009 Ebazpenetako irizpideari buruz egindako alegazioari dagokionez, Arbitraje Batzordeak zera azaltzen du: “Bizkaiko Foru Aldundiak, antza denez, absurdutzat jotzen duen ondorioa da, hain zuzen, ebazpen horietan atera duguna(...)”.

5. BFAk argudiatzen duenez, onartzen ez bada erakundearen zerga-egoitza lurralde erkidean dagoela, kontuan hartuta zergapekoaren zerga-egoitza parkearen zeregin teknikoak egiten direneko lekuan dagoela, zerga-egoitza horrek lurralde erkidean egon beharko du, bertan egiten baitira “gainerako kudeaketa- eta zuzendaritza-zereginak”, eta “itxiera modura”, Madrilen kokatzen du. Horri buruz, ZAEAk zera argudiatzen du:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

“(…) zergapekoaren bazkide eta administratzaile bakarra 1. BAZKIDEA da, eta hark gaur egun BIZKAIAN du zerga-egoitza. 1. BAZKIDEAK ezarrita duen enpresa- eta antolaketa-egitura sakabanatuta dago denborari eta geografari dagokionez, enpresako sailen funtzionaltasun-arrazoiak bultzatuta. 1. BAZKIDEAK parke eolikoei lotuta hartzen dituen erabakien izaera instrumental eta betearazlea besterik ez dute haiek. Erabaki horiek garrantzia hori dute, hain zuzen ere: inbertsioen betearazpena, juridikoa, finantzarioa, diruzaintzakoa, kontabilitatekoa eta zergei lotutakoa. Organo horiek, arlo funtzionalen egitura batean oinarrituz, bigarren maila batean dihardute eta lehen mailak (1. BAZKIDEAK) hartutako lehen mailako erabakiak eta estrategiak betearazten dituzte”; horri buruz, ZAEAk aipatu egiten du Arbitraje Batzordeak 7/2010 gatazkari buruzko uztailaren 26ko 10/2012 Ebazpenean azaltzen duena.

ZAEAk zera ere dio: “Parkeen Sustapen eta Salmenta Sailaren Batzorde Betearazlea horri dagokionez esan behar da taldearen enpresa-egitura osatzen duen beste organo bat izanik, haren izenak berak, "betearazlea", adierazten duela bere zeregina zein den: 1. BAZKIDEAK hartzen dituen erabakiak betearazten ditu (...); halaber, azaldu egiten du Arbitraje Batzordearen 14/2013 eta 16/2013 ebazpenek 16. eta 9. zuzenbide-oinarriek hurrenez hurren nola aipatzen dituzten Batzorde horren zereginak.

“Zergapekoa –ZAEAk ondorioztatzen duenez– ERAKUNDE TALDEAREN barnean hartuta dago, eta hura da, hain zuzen ere, osatzen duten sailen bitartez, gatazkaren xede den erakundearen negozioen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza betetzen dituen”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

6.a. ZAEAk espedientean aurkeztu du egitateak agerrarazteko 2010-06-21eko eginbidea, ZAEako langile batzuek 1. BAZKIDEAREN administratzaile bakarraren ordezkari den 2. ORDEZKARIAREKIN egindakoa, ERAKUNDE TALDEKO 8. ERAKUNDEAREN zentsu-egiaztapenerako prozeduran egindako hura; 31/2010 gatazka aipatzen du, zeinean Arbitraje Batzorde honek uztailaren 24ko R14/2013 ebazpenean erabaki batzuen erakunde horren egoitza eratze-datatik ez zegoela deklaraturako helbidean, Bizkaian baizik; ZAEAk azaldu zuenez, “adierazpen horiek gatazka honetan aplikatu eta ezarri ahal dira arazorik gabe, *modus operandi* berbera baita bi erakundeetan”.

7. BFAk dioenez, administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza lurralde erkidean daude, lurralde horretan egiten baitira gehienbat Batzorde Betearazlearen bilerak. ZAEA ez dago ados horrekin; dioenez, “organo horrek 1. BAZKIDEAK hartutako erabaki estrategiko handiak betearazten ditu, baina ez du egiten erakundearen administrazio-kudeaketa, ezta negozioen zuzendaritza ere. Zeregin hori 1. ORDEZKARIARI dagokio, administratzaile bakarraren ordezkaria den aldetik, eta 2009az geroztik 2. ORDEZKARIARI, eta baten zein bestearen lantokia Bizkaian dago. Aurreko horrekin bat etorrita, Batzorde Betearazle hori osatzen duten pertsonak langile espezializatuak dira, beren eremuari dagozkion erabaki teknikoak hartzeko gaitasuna dutenak, baina ERAKUNDE TALDEAREN parke eolikoaren hedapenak duen garrantziko negozio baten zuzendaritza eratzen duten erabakiak ez dituzte hartzen inola ere.”

ZAEAk dioenez, bere datu baseetan dagoen informazioaren arabera, eta BFAk dioena gorabehera, 1. ORDEZKARIAREN zerga-egoitza ez zegoen Araban, Bizkaian baizik; eta 2. ORDEZKARIAREN zerga-egoitza ez zegoen Bartzelonan; Estatistikako Institutu Nazionalaren erroldaren eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

Gizarte Segurantzaren datu basearen arabera Bizkaian dago, azken informazioaren data 2009/04/16 dela.

8.- Gatazkan ari diren Administrazioek azaldutako egitateak eta bakoitzak bere asmoak oinarritzeko egindako alegazioak aztertu dira; lehenago esan denez, funtsean errepikatzen da bi administrazioek beste arbitraje-gatazka batzuetan enpresa-jarduera bereko eta antolakuntza-egitura bereko erakundeei buruz argudiatu zutena. Bada, hori guztia aztertu ondoren zera ekarri behar dugu gogora: Arbitraje Batzorde honek, Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko Epaietan hurrenez hurren emandako epaien bidez (86/2009 eta 155/2009 errekurtsioak) berretsitako R1/2008 eta R1/2009 ebazpenetan, erabaki zuen gatazken xede ziren “X IZENDAPEN KOMUNA” sozietateen zerga-egoitza ez zegoela deklaraturako sozietate- eta zerga-egoitzan (euren titulartasunpeko parke eolikoa zegoen lurraldean kokatuta), funtsezko arrazoi batengatik: helbide hartan funtsean jarduera teknikoak egiten ziren, parkearen proiektuak eta eraikuntza, alegia. Aldiz, zantzu guztiek aditzera ematen zuten, enpresen administrazio-kudeaketako eta negozioen zuzendaritzako jarduerak helbidea Bizkaian zuten ERAKUNDE TALDEKO sozietate batzuek egiten zituzten.

Hainbat aldiz adierazi dugunez, “erakunde interesduna sozietate-talde bateko kidea izateak ez du funtsean aldatzen zerga-egoitza zehazteko irizpideen aplikazioa. Hain zuzen ere, taldeko sozietateek euren indibidualtasun juridikoa mantentzen dute; ondorioz, zerga-egoitza zehazteko irizpideak taldeko kideetako bakoitzari buruzkoak izan behar dira, bereizita. Beste hitz batzuekin esanda, talde bat egoteagatik, talde horretako sozietate baten helbidea zehazteari dagokionez, horrek ez du esan nahi administrazio-kudeaketako eta negozioen zuzendaritzako lanak sozietateak berak edo taldeko beste erakunde batek egin behar ez duenik; horrenbestez, jarduera horiek taldeko beste sozietate batek egiten baditu, hori gertatzen deneko lekua beste sozietate

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

horren zerga-egoitza izango da, Ekonomia Itunaren manu hura [43.Lau artikulua] aplikatuta” (besteak beste, R1/2008 ebazpena, 2008ko azaroaren 24koa, 1/2008 espedientea -Auzitegi Gorenak berretsia 2010eko otsailaren 4ko epaian, 86/2009 errekurtsua-; R 1/2009 ebazpena, 2009ko urtarrilaren 28koa, 2/2008 espedientea -Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 16ko epaiak berretsia, 155/2009 errekurtsua-; R16/2013 ebazpena, 2013ko irailaren 9koa, 4/2011 espedientea -Auzitegi Gorenaren 2015eko abenduaren 15eko epaiak berretsia, 415/2013 errekurtsua-; eta R18/2013 ebazpena, 2013ko irailaren 27koa, 3/2011 espedientea -Auzitegi Gorenaren 2015eko abenduaren 15eko epaiak berretsia, 468/2013 errekurtsua-; eta R19/2013 ebazpena, 2013ko irailaren 27koa, 5/2011 espedientea -Auzitegi Gorenak berretsia 2015eko ekainaren 18ko epaiaren bidez, 471/2013 errekurtsua-).

BFAREN iritziz, R1/2008 eta R1/2009 ebazpenen ondorioak ez dira mekanikoki hedatu behar honen antzeko beste kasu batzuetara, horiek eta aurrekoak diferenteak baitira, baina bere alegazioetan BFAK ez du azaltzen kasu biak zertan diren diferenteak. Hala ere, zera gertatzen da: gatazka honetako aldeek azaldutako inguruabarrak batera baloratuta, zera ondorioztatu behar da: orain aztertzen ari garen kasua eta Arbitraje Batzorde honen R1/2008 eta R1/2009 ebazpenen xede izan direnak funtsean ez dira diferenteak, eta ERAKUNDE TALDEAK horietan guztietan antolakuntza-egitura berbera erabili du parkeen "sustapen eta salmenta" egiteko. Horretarako funtseko ildoak honako hauek dira: a) Parkea zein lurraldetan dagoen eta helbidea bertan duen taldeko holding batek osorik partaidetutako sozietate bat eratzea; b) Sozietate horrek ("IZENDAPEN KOMUNA X, S.A.") parkea eraikitzeke prestakuntza-lanak egitea eta eraikuntza- eta instalazio-lanak egitea, horretarako Taldeko enpresa teknologikoekin kontratuak egin behar dituela; c) Parkearen jabe den sozietatea eskualdatzea, bere kapitalaren akzio adierazgarriak salduta.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

Eskema berbera errepikatzeak azaltzen du “parke eolikoko sozietateen” sozietate-egintza eta -eragiketak bereziak ez izatea haietariko bakoitzarentzat, eta aitzitik, sozietate horientzat guztientzat multzoan egitea. Akzioak saldu arte, “parke eolikoko sozietateak”, izatez, egitura tekniko hutsak dira (eraikitzen ari diren industria-instalazioak), banakako enpresa-kudeaketarik gabeak; izan ere, kudeaketa hori ERAKUNDE TALDEKO organo zentralek egiten dute mota horretako sozietate guztietarako; beraz, leku horretan dituzte organoek horretarako beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak. Aurrekari guztietatik ondorioztatzen denez, leku hori Bizkaia da funtsean.

Hala esan du Arbitraje Batzorde honek hainbat aldiz ebazpen hauetan: R14/2013, 2013ko uztailaren 24koa, 31/2010 espedientea (8. ERAKUNDEA) -Auzitegi Gorenak 417/2013 errekurtsuan 2015eko ekainaren 18ko epaiaren bidez berretsia-; R16/2013, 2013ko irailaren 9koa, 4/2011 espedientea (2. ERAKUNDEA) -Auzitegi Gorenak 415/2013 errekurtsuan 2015eko abenduaren 15eko epaiaren bidez berretsia-; R18/2013, 2013ko irailaren 27koa, 3/2011 espedientea (5. ERAKUNDEA) -Auzitegi Gorenak 468/2013 errekurtsuan 2015eko abenduaren 15eko epaiaren bidez berretsia-; R19/2013, 2013ko irailaren 27koa, 5/2011 espedientea (3. ERAKUNDEA) -Auzitegi Gorenak 471/2013 errekurtsuan 2015eko ekainaren 18ko epaiaren bidez berretsia-; eta R7/2014, 2014ko abenduaren 19koa, 32/2010 espedientea (9. ERAKUNDEA) eta R17/2015, 2015eko urriaren 19koa, 15/2011 espedientea, BFAk gatazka honetan azaldutako guztiz berdinak diren alegazioak ezesteko.

9.- Aurreko ebazpen batzuetan esan dugunez, halaber, aurreko horren aurka ez doa ERAKUNDE TALDEKO organo zentraletako batzuk Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egotea; hori azpimarratzen du BFAk, eta ZAEAk ez du ukatzen. Alde horretatik, BFAk nabarmentzen ditu Parkeen Sustapen eta Salmenta Sailaren Batzorde Betearazlearen zereginak, eta organo horren bilerak normalean Madrilan egitea. BFAk dioenez, batzorde horrek parkeen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

gaiei buruzko erabaki estrategikoak hartzen ditu ikuspuntu guztietatik, ikuspuntu teknikoetatik, ekonomia eta finantza ikuspuntuetatik, ikuspuntu juridikoetatik, etab.; aitzitik, ZAEAREN ustez besterik gabe 1. BAZKIDEAREN erabakiak betearazten ditu. Horri buruz esan behar da ERAKUNDE TALDEAREN antolakuntza-egitura ez dela aztertu gatazka honetan; beraz, Arbitraje Batzorde honek ez daki zehatz-mehatz zein diren hainbat aldiz aipatu den Batzorde eginkizunak eta posizioa; hau da, ez daki organo horrek hartzen ote dituen erabaki gorenak parke eolikoei buruz, ala, aitzitik, funtsean Taldeko goiko organoen mendeko organo teknikoak den.

Dena dela, edozein dela ere Batzordearen edo Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpoko organoen zeregina –espedientetik ondorioztatzen denez halakoak dira diruzaintzaz edo zerga-arazoez arduratzen direnak–, hori ez da erabakigarria alde batera uzteko “parke eolikoko sozietateen” administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza enpresa-erabaki nagusiak hartzen dituzten ERAKUNDE TALDEKO organo zentralak egiteko aukera.

Alde horretatik, 2011ko maiatzaren 2ko R11/2011 ebazpenean (29/2008, 30/2008, 32/2008, 38/2008, 39/2008 eta 40/2008 espediente metatuak), 13. zuzenbide-oinarrian, garrantzia kentzen diogu administrazio-organoen bilerak eta bazkideen Batzar Nagusiak egiten zireneko lekuari. Posizio horri euskarria emateko harira ekarri genuen Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzietako Salaren 7958/2005 epaia, ekainaren 20koa (426/2002 errekurtsua), Autonomia Erkidegoei lagatako zerga-aroko gatazkak ebazteko Arbitraje Batzordearen 2002ko apirilaren 4ko erabakiaren aurkako errekurtsua ezetsi zuena. Epaia horrek ebatzi zuenez, bada, 2. SOZIJETATEA sozietatea Madriletik Bartzelonara lekualdatzea alferrikakoa izango zen, konpainiako exekutibo nagusiak eta kontseilukide batek helbidea eta jarduera Bartzelonan izan arren. Epaia horren aurka aurkeztutako 1115/2006 kasazio-errekurtsua Auzitegi



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salak ezetsi zuen 2011ko apirilaren 13ko Epaiaren bidez.

Halaber, azaldu dugunez, “sozietate baten zerga-egoitza zehazteko orduan datu faktiko oso garrantzitsuak dira, edo izan daitezke, normalean entitatearen kontratazio orokorra egiaztatzen den bulegoaren kokapena, beste leku batzuetan egin daitekeenari kalterik egin gabe, garatutako jardueren arabera; kontabilitate nagusia etengabe egiten den bulegoaren kokapena; eta entitatearen administratzaileen edo gerenteen zerga-egoitza, gizarte-eragiketak behar den bezala egiaztatu eta ziurtatu ahal izateko kopuru nahikoa adierazita” (besteak beste, ebazpen hauek: R4/2009 ebazpena, 2009ko martxoaren 6koa, 5/2008 espedientea; R29/2011 ebazpena, 2011ko abenduaren 22koa, 33/2008 espedientea); eta hau ere azaldu dugu: “kontabilitatea gainerako kudeaketa- eta zuzendaritza-jarduerez bestelakoen leku batean eramatea ez da bere kabuz erabakigarria erakundeen negozioen administrazio-kudeaketaren eta zuzendaritzaren lokalizaziorako, eta uste dugu garrantzitsua dela erakundeak enpresa- edo sozietate-talde bateko kideak izatea; kontuan hartuta, bada, administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza ez direla irizpide banangarriak, eta baten eta bestearen arteko desadostasuna dagoenean bigarrenak lehentasuna izan behar duela, enpresaren funtsezko erabakiak hartzen diren lekua delako” (R14/2013 ebazpena, 2013ko uztailaren 24koa, 31/2010 espedientea; R16/2013 ebazpena, 2013ko irailaren 9koa, 4/2011 espedientea –Auzitegi Gorenaren 2015eko abenduaren 15eko epaiak berretsia, 415/2013 errekurtsua–; R18/2013 ebazpena, 2013ko irailaren 27koa, 3/2011 espedientea –Auzitegi Gorenaren 2015eko abenduaren 15eko epaiak berretsia, 468/2013 errekurtsua–; R19/2013 ebazpena, 2013ko irailaren 27koa, 5/2011 espedientea; eta R7/2014 ebazpena, 2014ko abenduaren 19koa, 32/2010 espedientea) eta R17/2015 ebazpena, 2015eko urriaren 19koa, 15/2011 espedientea.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

Lehenago aipatu diren epaietan (2013ko urriaren 17koa, 538/2012 errekurtsua, Laugarren Oinarria; 2014ko otsailaren 21ekoa, 505/2012 errekurtsua, Laugarren Oinarria; eta 2015eko ekainaren 18koa, 417/2013 eta 471/2013 errekurtsuak, Bosgarren Oinarria) azaltzen denez, Auzitegi Gorenak hainbat aldiz errepikatu du doktrina hau: “Lokalak edo biltegiak, enpleguak (asko edo gutxi), jarduera partzial batzuk edo besteak garatzen diren lekuak, administrazio-organoaren bilerak egiten diren eta erabakiak hartzen diren lekua, sozietate-liburuak zaintzen diren lekua eta abar izatea garrantzi handiagoa edo txikiagoa duen, baina berez –enpresa-jardueraren funtsezko datua kontuan hartu ezean– ezer adierazten ez duen zantzua da”; Horrenbestez, bada, “legezko definiziorik ezean, kontuan hartu behar dira kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak eta sozietate bakoitzaren ezaugarriak eta jarduera, osorik hartuta; beste alde batetik, deskubritutako zantzuen multzoa ezin da bereizi enpresa-jardueraren funtsezko datutik” (Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 18ko Epaiak, 417/2013 errekurtsua, Bosgarren Oinarria).

10.- Horrenbestez, aurreko ohar guztien argitan, erakundeak egindako enpresa-jarduera kontuan hartuta, eta kasu honen ezaugarriak eta Arbitraje Batzorde honek suposamendu bereberri buruz ebatzitakoen eta Auzitegi Gorenak judizialki berretsitakoen ezaugarriak ez direnez diferenteak, ondorioztatu behar dugu 1. ERAKUNDEAREN administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, 2003ko irailaren 15ean eratu zenetik, 1 BAZKIDEAK –bazkide eta administratzaile bakarrak– bere jarduerak egiten zituen leku berean egiten zirela. Leku hori argi eta garbi Bizkaia da.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKITZEN DU:**

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2011	R2/2016	27-02-2016	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

1.- LEHEN ERAKUNDEAREN (IFZ: ----) zerga-egoitza, eratu zen datatik, hau da, 2003ko irailaren 15etik, Bizkaian zegoela deklaratzeko.

2.a.- Jarduketak amaitutzat jotzea eta artxibatzea.

3.a.- Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta 1. ERAKUNDEARI jakinaraztea erabaki hau.